



# **ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA**

IKASTETXEETAN PRESTATZEKO

ORIENTABIDE OROKORRAK

NAFARROAKO  
GOBERNUA

Lege Gordailua:  
Inprimatu du:

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	4
1. SARRERA .....	5
2. ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANAREN HELBURUA .....	7
3. ILDO OROKORRAK ETA PLANA PRESTATZEKO IRIZPIDEAK.....	8
3.1. Zein ikasle hartu behar den kontuan.....	8
3.2. Aniztasunari Erantzuteko Planeko elementuak.....	9
ERANSKINAK.....	11
"ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA IKASTETXEETAN" azpiprozesuaren fluxu -diagrama .....	11
ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA (PAD) NOLA PRESTATU .....	12
IKASLE ETORKINA HARTZEKO PROGRAMA: ESKEMA .....	13

## AURKEZPENA

Gaur egungo gizartea gero eta pluralagoa da. Gizarte honek hezkuntza sistemari eta, bereziki, eskolari hainbat erronka ezarri dio. Horietan garrantzitsuena da ematen duen prestakuntza ikasle guztiengana iristeko gai izatea. Ikasle horiek ere gero eta askotarikoagoak dira.

Hezkuntza Departamentua eskaera garrantzi horrekin sentsibilizatuta baitago, agiri marko hau prestatu du. Agiri honi jarraipena emanen dioten bestelako material osagarri batzuk ere prestatzen ari da. Honen guztiaren helburua da eskola komunitatea laguntzea, betiere irakasle taldeek gogoeta egin dezaten ikastetxeetan Aniztasunari Erantzuteko Plana prestatu behar dutenean.

Ikastetxeetan Aniztasunari Erantzuteko Planaz baliatu beharko da askotariko hezkuntza proposamenak ikasle berezi eta bakarren benetako beharrekin lotzeko. Ikastetxeko hezkuntza jarduera eraginkorra eta kalitatezkoa izatea nahi bada, plan hori ikasleen pluraltasunari egoki doitu beharko zaio.

Nahi genuke lantresna hori eta honi erantsitako materialak –honako honetan aurkeztutakoak, alegia– lagungarri gertatzea aldatzen ari den gizarte honetan hezitzaile gabiltzanontzat.

# 1

## SARRERA

Aniztasunari erantzutea hezkuntza sistemaren eta, bereziki, ikastetxeen erronka handienetariko bat da, hezkuntzaren esku-hartzea ikasleen benetako beharrei egokitu behar zaielako, kalitatezko hezkuntza ziurtatzearen. Horrek guztiak ikastetxeei eta irakasleei eskatzen die egindako lanaren gainean gogoeta sakon egitea eta lan profesional duin eta ahaleginez betea egitea.

Zuzentasunak bermatzen du denek hezkuntzaren bidez nortasuna bere osotasunean garatzeko kalitatezko aukera berak izan behar ditugula, betiere printzipio demokratikoak, eta oinarritzko eskubide eta askatasunak errespetatuz. Hala ere, zuzentasun horrek nahitaez malgua izan beharko du hezkuntzaren egitura eta antolaketa gizartearen aldaketei, beharrei eta eskakizunei, eta ikasleen askotariko gaitasunei, interesei, itxaropenei eta nortasunari egokitzeko.

Hori hala izanik, ikastetxeek eta irakasleek, curriculumaren eta ikasleen arteko bitartekari moduan, lehentasunezko helburu hau izanen dute: ikasgelan eta handik kanpo ere askotariko hezkuntza proposamenak egitea eta aukera sare zabala prestatzea, pertsona ororen prestakuntza helburu horiek lortzeko.

Doitze-lan hau bi motatakoa izanen da. Batetik, curriculumak orohartzailea izan behar du, gizarte demokratiko batean desoreka sozialak konpentsatzeko prestakuntzarako aukeretan zuzentasuna bultzatzea helburu duelako eta, bestetik, irakaskuntzak nahitaez pertsonalizatua izan behar du, ikasle berezi eta bakarraren garapen integrala proposatzen duelako. Batik bat, gure hezkuntza sisteman irakaskuntza nahitaezkoa dela onartzen den garaian. Horrek berarekin dakar, batetik, ikasle guztiendako oinarritzko helburu komunak izatea eta, bestetik, ikasle bakoitzak bere hezkuntza prozesuan dituen beharrak, ahalmenak eta interesak askotarikoak eta gero eta handiagoak izatea.

Aniztasunatzat ulertzen dugu eskolako ikaskuntzen aurrean ikasleek elkarren artean dituzten desberdintasunak –desberdintasun horien jatorriaren zergatiak kontuan harturik, jakina–. Ikasleak multzo heterogeneo baten parte dira eta horien hezkuntza beharrak txikienetik handienerako continuum batean sar daitezke. Hezkuntzak eman beharreko erantzunak ere askotarikoak eta continuum batean sar daitezkeenak dira. Helburua, hauxe: irakaskuntza eta ikaskuntza elkarren artean ezin hobeki doitzea. Hartu beharreko neurriak ere denetariokoak izanen dira: arruntetatik edo ia-ia arruntetatik hasi eta berariazko edo berezietarainokoak arte.

Aniztasuna continuum bat da eta egunetik egunera ikasleen arteko desberdintasunak gero eta handiagoak dira ikasgeletan. Beraz, aniztasuna zerbait normal bihurtu da eta irakasle

arruntek bereganatu beharra dute normalizazioaren irizpideetatik abiatu eta ez espezializaziotik. Eskolan garatzen diren ikasketa prozesuen aurrean ikasleak ez dira berdinak, “askotarikoak” baizik. Ikasle guztiek ez dituzte gaitasun, interes, motibazio, ahalmen, heldutasun-erritmo eta ikasteko estilo, esperientzia eta aurretiko ezagutza, gizarte eta kultura ingurune, eta abar berak. Alderdi horiek guztiek ikasleak hainbat mota eta profiletakoak egiten dituzte eta neurri handi batean hezkuntzaren plangintza eta jarduna zehazten dute.

Aniztasun orokor honen barruan, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak hartuko ditugu honako hauek: beren ikastaldearendako proposatutako curriculumetik aski urruntzeagatik, ikasgela arrunteko programazioan egokitzapenak behar izateaz gainera, curriculumean aldaketa “esanguratsuak” (gutxiago edo gehiago) behar dituzten haiek. Ikasle horiek antolaketa arloko proposamen berezituak eta laguntzaile espezializatuak (gutxiago edo gehiago) beharko lituzkete.

Hori horrela, eskola mailetan aurrera joan ahala, curriculumarekin ere konplexuagoa egiten da. Horrek berarekin dakar taldea antolatzeko neurriak handitu behar izatea norberaren beharrei egokitzeko hezkuntzak emanen duen erantzun modura.

Irakaskuntza pertsonalizatuak eta orohartzaileak bermatu behar dute ikasleek irakaskuntza komun bat izan behar dutela, batetik, beren burua garatzeko eta gizarteratzeko eta, bestetik, beren ahalmenak garatzean izan daitezkeen desberdintasunei behar bezalako laguntza emateko, bereziki Bigarren Hezkuntzan.

Normalizazio irizpideetatik abiatu eta orohartzaitasunaren printzipioari begira, neurri arruntei lehentasuna emanen zaie eta euskarri eta laguntzetan sare naturalak bultzatuko dira. Hori egin ondoren, ez aurretik, hain arruntak ez diren neurriak hasiko dira erabiltzen, betiere haiek erabili beharra justifikatuta dagoela ikusten bada. Horrekin guztiarekin segurtatu nahi da ikasle orok atentzio egokia izateko duen eskubidea –pertsonalizazioa– eta, aldi berean, baldintzak optimizatu nahi dira, batetik, ikasleek ikas dezaten eta, bestetik, irakasleek irakas dezaten.

Ikastetxeek eta irakasle taldeek bereganatu behar dute Aniztasunari Erantzuteko Plan bat izatea garrantzitsua eta beharrezkoa dela, ikastetxean aniztasunari erantzuteko hezkuntza beharren urteko plangintzaren gidari eta Urteko Programazio Orokorren esparruan. Hala egiten bada, ikasle guztien beharrei erantzun doituak emanen zaizkie, bereziki hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei, betiere norberak kalitatezko hezkuntza izateko duen eskubidea segurtatzeko.

Gogoeta hauek abiaburu bat besterik ez dira, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak geroago bidaliko baititu berriazko jarraibideak ikastetxeetara, ikasleen aniztasuna egoki kontuan har dezaten.

## ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANAREN HELBURUA

Ikastetxe bateko Aniztasunari Erantzuteko Planak honako helburu hauek ditu:

- Irizpideen erreferente izatea ikastetxeak urtero doitu dezan hezkuntzak ikasleen beharrei zer erantzun eman behar dien.
- Lantresna izatea ikastetxeak, ikasleen aniztasunaren hezkuntza beharrak baloraturik, euskarriak planifikatu eta antolatzeko, eta eskura dituen baliabide pertsonalei lehentasuna emateko, neurri horiek behar dituzten ikasleen talde zein bakarkako beharrei doitzearren.
- Ikasgela barruan edo ikasgelaz kanpo, modu osagarrian eta ahal denean talde mailan, hezkuntzak aniztasunari eman beharreko erantzunari –curriculum egokitzeko eta antolaketa malgutzeko neurriei– lehentasuna emateko irizpideak orientazioaren, tutoretzaren, irakasle tutorearen, arloko irakaslearen, irakasle arrunten eta espezializatuen (E/H2ko, pedagogia terapeutikoko edo logopediako irakasleen, fisioterapeutaren, zainzailearen) lan koordinatuarekin nola zehaztu behar diren gidari izatea. Beharrezkoa bada, CREENAko espezialisten laguntza eskatuko da.
- Irakasle etorkinak eta gutxiengo soziokulturaletako ikasleak ikastetxean hartu eta sartzeko erabili beharreko neurriak eta ildoak ezartzea, irakasleen artean adostutako Harrera Plan baten barnean.
- Plangintza bat aurrez ikustea ikasturtean zehar sor daitezkeen beharren aurrean aldaketak sartzeko, betiere antolaketa mailako neurri malguak hartuz. Horrek berarekin ekarriko du ikasturtearen hasieran ikastetxean lan egiten duten irakasle arrunten eta espezialisten lana nahitaez doitzea, hala behar denean, hezkuntza premia bereiziei egokitzeko. Hori egiterik ez dagoenean, premia berriak izugarri handitzen direlako, eskura dauden baliabideak eskatuko lirateke.
- Aniztasunari emandako erantzunaren eraginkortasunari barne-ebaluazioa egitea ikasturtea bukatzen denean eta hurrengo ikasturtean hobetu beharreko alderdiak zein diren identifikatzea.

## ILDO OROKORRAK ETA PLANA PRESTATZEKO IRIZPIDEAK

Ikastetxeetako zuzendaritza taldeek Aniztasunari Erantzuteko Plana (nork berea) errazago prestatzeko eta funtsean ikastetxeek egindako planak homogeen samarrak izanen direla bermatzeko, Dibertsitate, Kultura-aniztasun eta Inmigratioaren Zerbitzuak plan horiek prestatzeko ildo orokorrak eta irizpideak prestatu ditu. Dokumentu honetan eta bere eranskinetan bildu dira ikasleen aniztasunari erantzuteko zer gogoeta egin eta zer erabaki hartu behar den. Kontuan izan ezazue horiek oro kontuan hartu behar direla planak prestatzeko orduan.

### 3.1. ZEIN IKASLE HARTU BEHAR DEN KONTUAN

- Hezkuntza beharrak bat baino gehiago dira. Ikastetxe bakoitzean eskolatzen diren ikasleak ere askotarikoak dira. Hori dela-eta, Aniztasunari Erantzuteko Planak (PAD), orokorki, ikasle guztiak bere baitan hartu behar ditu, edozein izanik ere haien beharrak.
- Bereziki, PADek bere baitan bildu behar ditu ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan egoki aurrera egiteko arazoak dituzten ikasleak eta, orobat, aruntagoak diren jardunak osatzeko bestelako laguntzak eta baliabideak behar dituztenak.
- Horien artean daude hezkuntza beharrak (berariazkoak, iragankorrak edo iraunkorrak) dituzten ikasleak:
  - Sozioekonomikoki eta soziokulturalki egoera behartuan dauden ikasleak
  - Atzerriko ikasleak, hizkuntza ez dakitenak, edo oinarriko ezagutzetan gabezia larriak dituztenak.
  - Intelektualki talentu apartekoak diren ikasleak
  - Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, hots, ezgaitasun fisikoak, psikikoak edo zentzumenezkoak dituztenak edo nortasun edo jokabidezko trastorno larriak dituztenak.

## **3.2. ANIZTASUNARI ERANTZUTENKO PLANENKO ELEMENTUAK**

### **1. Ikastetxean aniztasunari erantzuteko printzipioak, esparru teorikoa eta legezko esparrua.**

- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua zehaztea.
- PADaren helburuak, ikastetxearen ezaugarriak kontuan hartuz.
- Gogoeta egitea aniztasunaren kontzeptuari eta, ikasleen hezkuntza premiei dagokienez, ikasleen alderdi bereizgarriari buruz.
- Irizpide orokorrak, ikastetxeko ikasleen aniztasunari erantzuteko.
- Irizpideak, PADaren bideragarritasuna eta eraginkortasuna urtero ebaluatzeko.

### **2. Hezkuntza beharrak antzemateko eta baloratzeko irizpideak eta prozedura.**

- Hasierako ebaluazioa.
- Aldi oroko ebaluazioak.
- Ebaluazio psikopedagogikoa.
- Organo kudeatzaileak:
  - Zuzendaritza taldea eta Hezkuntzarako Laguntza Unitatea Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.
  - Zuzendaritza taldea eta Orientazio Departamentua Bigarren Hezkuntzan.

### **3. Curriculumeko eta antolaketako neurriak, eta irizpideak deskribatzea, antzematen diren hezkuntza beharrei lotzeko.**

#### **a) Curriculumeko neurriak:**

- Curriculumeko eta ikasgelako programazioak egokitzea, curriculumeko sakontze-mailen arabera
- Aukerakotasuna
- Tutoretza

#### **b) Antolaketako neurriak:**

- Indartzeak, laguntzak eta sakontzea.
- Berariazko taldekatzeak:
  - 1) Arloren batean laguntza ematea, aldi baterako edo jarraian
  - 2) Hizkuntza irakasteko (HI2) laguntza trinkoa ikasle atzeritarrendako
  - 3) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei etengabeko laguntza ematea
    - Kurtsoan beste urte batez egotea.
    - Kurtsoa bizkortzea.
    - Bestelako neurriak.

### **4. Aniztasunari erantzuteko giza baliabideak eta baliabide materialak antolatzeko eta koordinatzeko irizpideak.**

- a) Irakasle arruntak errefortzuetarako, laguntzetarako, eta berariazko taldekatzeak, curriculumean desfaseak daudelako.
- b) Irakasle arruntak intelektualki talentu apartekoak diren ikasleen ikaskuntza zabaltzeko edo sakontzeko.

- c) Irakasle arruntak: tutoreak Lehen Hezkuntzan eta irakasle generalistak eta/edo Hizkuntzan edo Atzerriko Hizkuntzan espezialista direnak, betiere formazio egokia badute, atzerritar ikasleei 2H-n laguntza emateko eta harrera neurriak hartzeko.
- d) Pedagogia Terapeutikoko irakasleak: laguntza iraunkor eta unitate berezietarako, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleendako. Premia horiek ezgaitasunari, eta nortasun edo jokabidezko trastorno larriari loturikoak dira. Irakasle horiek beste laguntza baliabide batzuk behar izan ditzakete, hala nola, logopedarena, fisioterapeutarena edo zainzailearena. Ohiz kanpo edo modu iragankorrean, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak irakasle arruntekin batera egin dezake lan, curriculumeko desfase handiak dituzten ikasleei laguntzeko.
- e) Gutxiengo soziokulturalei laguntzeko irakasleak.

Hori guztia egingen da, nahitaez koordinatuz Hezkuntzarako Laguntza Unitatearekin (UAE), Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta Orientazio Departamentuarekin, Bigarren Hezkuntzan, eta, hala behar denean, CREENAREN parte-hartzeaz.

### **5. Familiarekin nola komunikatu: irizpideak eta prozedura.**


- a) Familiari erantzuteko plana diseinatzea, ikaslea ikastetxean sartzen denean edo hezkuntza etapaz aldatzen denean.
- b) Urteko Tutoretza Planean sartzea ikastetxeko etapa eta mailetarako familiarekin egin beharreko jarduerak.

### **6. Kanpoko instantziarekin lankidetzan aritzeko ildoak eta programak.**

Orientazio Departamentuak eta Hezkuntzarako Laguntza Unitateak koordinazio eta jardun bateraturako ildoak ezarriko dituzte oinarriko gizarte zerbitzuekin, gizarte ongizatearekin, osasun etxeekin, eta bestelako udal organismoekin eta ikastetxearen inguru sozialeko erakundeekin.

# ERANSKINAK

## "ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA IKASTETXEETAN" AZPIPROZESUAREN FLUXU-DIAGRAMA"



## ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA (PAD) NOLA PRESTATU

AZPIPROZESUAREN JARDUERAK	HELBURUA	JARDUNAK	ARDURADUNA	KUDEAKETARAKO BALIABIDEAK	PROZEDURA	EGUTEGIA
<b>1. Hezkuntza komunitatea sentsibilizatzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Hezkuntza Komunitateko kide guztiak kontzientziatzea</li> <li>▪ Berariazko hezkuntza beharrak dituzten ikasleen egoera normalizatzen eta haiek integratzen saiatzea</li> <li>▪ Hezkuntzaren esparruan kultura artekotasuna bultzatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Jarduerak antolatzea, honakook inplikatur:               <ul style="list-style-type: none"> <li>➢ Gurasoak</li> <li>➢ Ikasleak</li> <li>➢ Irakasleak</li> <li>➢ Inguruko erakundeak</li> </ul> </li> <li>▪ Prestakuntza (ikastaroak, jardunaldiak, biltzarrek...)</li> <li>▪ Tutoretza Plana (PAT) berrikustea</li> </ul>	Zuzendaritza taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ PAT</li> <li>▪ Gurasoekin bilerak egitea</li> <li>▪ Sentsibilizazio jardunaldiak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasle Etorkinak hartzeko Programa</li> <li>▪ Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei buruzko bibliografia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasturtean zehar</li> </ul>
<b>2. Beharrak antzematea eta baloratzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasgelako ikasleen beharrak zein diren baloratzea</li> <li>▪ Sartu berri diren ikasleen beharrak zein diren baloratzea</li> <li>▪ Ikasturtean zehar antzemandako beharrak zein diren baloratzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hasierako ebaluazioa</li> <li>• Ebaluazio psikopedagogikoa</li> <li>• Ebaluazio saioak</li> </ul>	Tutorea Orientatzailea Irakasle taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ UAE</li> <li>▪ Orientazio Dptua.</li> <li>▪ H. p. b.en errolda</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Proba psikopedagogikoak</li> <li>▪ Gaitasunen erregistroak</li> </ul>	Maiatza-ekaina: aurreikuspena. Iraila: berrikuspena Ikasturtean zehar: aldaketak
<b>3. Aniztasunari Erantzuteko Neurrien Proposamena - MAD</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikastetxean aplikatu beharreko MADak hautatzea</li> <li>▪ Antzemandako beharren arabera proposamenak egitea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tutorearen, irakasle taldearen eta orientatzailearen arteko adostasuna</li> </ul>	Zuzendaritza taldea / Orientatzailea	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ UAE</li> <li>▪ Orientazio Dptua.</li> <li>▪ Didaktika dptuak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ordutegiak, taldekatzeak</li> <li>▪ ACI. Eredua</li> <li>▪ Ikasturte hasierako jarraibideak</li> </ul>	Ekaina Iraila Ikasturtean zehar, berrikuspenak
<b>4. Behar diren baliabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskura dauden baliabideak aztertzea</li> <li>▪ Baliabideak antolatzea / berrantolatzea</li> <li>▪ Eskura ez dauden baliabideak eskatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Hezkuntza proiektuan finkatutako irizpideak</li> <li>▪ Premien proiektua ikasturte bukaerako memorian.</li> </ul>	Zuzendaritza taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ UAE</li> <li>▪ Orientazio Dptua.</li> <li>▪ Didaktika dptuak.</li> <li>▪ Ikuskatzailetza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikuskatzailetzara txostenak bidaltzea</li> <li>▪ IAD / DOC</li> <li>▪ Programak</li> <li>▪ Proiektuak</li> </ul>	Ekaina - Iraila Ikasturtean zehar
<b>5. Hartutako neurriak aplikatzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Aniztasunari Erantzuteko Plana gauzatzea</li> <li>▪ Neurriak nola hartu behar diren parte-hartzaileen artean koordinatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neurriak praktikan jartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zuz. taldea</li> <li>▪ Orientatzailea</li> <li>▪ Depart. bur.</li> <li>▪ Tutorea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ UAE/ Orientazio dptua.: bilerak</li> <li>▪ Irakasle taldeak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ordutegiak, taldekatzeak egiteko irizpideak</li> <li>▪ Ikasle Etorkinak Hartzeko Programa</li> </ul>	Ikasturtean zehar
<b>6. Ebaluazioa eta jarraipena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Neurriak aplikatzeko prozesua berrikustea</li> <li>▪ Hartutako neurrien antolaketa eta aplikazioa doitzea, behar denean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Tutoretza Plana (PAT) eta Aniztasunari Erantzuteko Neurriak taldean ebaluatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zuz. talde.</li> <li>▪ UAE</li> <li>▪ /Orientatzailea</li> <li>▪ Depart. bur.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ UAE/ Orientazio dptua: bilerak</li> <li>▪ Irakasle taldeak</li> <li>▪ Ikuskatzailetza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ebaluazio saioak</li> <li>▪ ACI berrikustea</li> <li>▪ Hobekuntza plana</li> </ul>	Maiatza-ekaina Ikasturtean zehar

**IKASLE ETORKINA HARTZEKO PROGRAMA: ESKEMA**

	<b>Helburuak (Zertarako?)</b>	<b>Arduradunak (Nor?)</b>	<b>Prozedura (Nola?)</b>	<b>Jarduerak (Zer?)</b>	<b>Baliabideak (Zerekin?)</b>	<b>Egutegia (Noiz?)</b>
<p><b>1. HEZKUNTZA KOMUNITATEA KULTUREN ARTEKO HEZKUNTZAN SENTSIBILIZATZEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleekin</li> <li>• Gurasoekin</li> <li>• Irakasleekin</li> </ul> <p><b>2. FAMILIA IKASTETXEAN HARTZEA</b></p> <p>2.1 Harrera</p> <p>2.2 Ikastetxeak emandako informazioa</p> <p>2.3 Eskatutako dokumentazioa</p> <p>2.4 Familiaren tutorizazioa</p> <p><b>3. HASIERAKO EBALUAZIOA ETA ADSKRIPZIOA</b></p> <p>3.1 Gaztelaniarik jakin gabe</p> <p>3.2 Gaztelania jakinda</p> <p>3.3 Ikasgela-taldeari adskribitzea</p> <p><b>4. IKASLEA IKASGELAN HARTZEA</b></p> <p>4.1 Elkar aurkeztu eta ezagutzeko jarduerak</p> <p>4.2 Ikasle tutoreak</p>						

	<b>Helburuak (Zertarako?)</b>	<b>Arduradunak (Nor?)</b>	<b>Jarduerak (Zer?)</b>	<b>Prozedura (Nola?)</b>	<b>Baliabideak (Zerekin?)</b>	<b>Egutegia (Noiz?)</b>
<b>5. CURRICULUMEAN SARTZEA</b>						
5.1 2H ikastea						
5.1.1 Metodologia eta ikasmaterialak						
5.1.2 Espainiera eskuratzea eta curriculumean sartzea						
<ul style="list-style-type: none"> <li>• I. maila</li> <li>• II. maila</li> <li>• III. maila</li> </ul>						
5.2 Curriculumaren oinarritzko edukiak enbor-irakasgaietan						
5.3 Atzerriko hizkuntza ikasten hastea.						
<b>6. ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA</b>						
6.1 Taldekatzeak (egin daitezkeenak)						
6.1.1. A/B taldeak						
6.1.2. Mailen/Diziplinen arteko taldeak						
6.1.3. “2 3tan” taldeak.						
6.2 Curriculumeko egokitzapenak.						
6.3 Koordinazio neurriak.						
6.4 Eskolaz kanpoko jarduerak						
6.5 Beste entitate batzuekin lankidetzan aritzea.						

		<b>Helburuak (Zertarako?)</b>	<b>Arduradunak (Nor?)</b>	<b>Jarduerak (Zer?)</b>	<b>Prozedura (Nola?)</b>	<b>Baliabideak (Zerekin?)</b>	E
<p><b>7. KULTUREN ARTEKO GAITASUNAK GARATZEA</b></p> <p>7.1 Ikastetxeko kulturak ezagutzea.</p> <p>7.2. Gizarte elkarreragineko eta bizikidetzarako trebetasunak.</p> <p><b>8. ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK</b></p> <p>8.1 Praktika pedagogiko onak izateko proposamenak</p> <p>8.1.1 Ikaskuntza kooperatiboa</p> <p>8.1.2 Ikasleek eta familiek tutore lana egitea</p> <p>8.1.3 Boluntarioen lankidetzeta</p> <p>8.2 Prestakuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasleak</li> <li>• Gurasoak</li> <li>• Boluntarioak</li> </ul> <p><b>9. HARRERA PLANAREN AUTOEBALUAZIOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Galde-sorta</li> </ul>							